

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

OHL-Agbar empresa taldeak, % 25eko deskontuarekin, aurkeztu du eskaintza ekonomikorik onena Nafarroako Ubidea handitzeko lehiaketan

Beste lehiakideak, Acciona-Iridium buru duenak, % 11,9ko deskontua proposatu du.

Miércoles, 26 de marzo de 2014

OHL-Agbar empresa taldeak, % 25ko deskontuarekin, Nafarroako Ubidearen lehen faseko eremu ureztagarria handitzeko lehiaketan eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu du. Acciona-Iridium taldeak, aldiz, % 11,9ko deskontua proposatu du.

Hala eman du jakitera gaur goizean Kontratazio Mahaiak eskaintza ekonomikoak ireki ondoren, José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariak Gobernuaren saioaren amaieran egin den prentsaurrekoan esan duenez.

Aurkeztutako eskaintzen arabera, OHL-Agbar taldeak (Obrascón Huarte Lain SA eta Sociedad General de Aguas de Barcelona SA) 700 puntu lortu ditu leihan zati ekonomikoan. Acciona Infraestructuras-Iridium taldeak, aldiz, 546,55 puntu lortu ditu.

Bestalde, zati teknikoan, 300 puntutatik 279 lortu ditu OHL-Agbar taldearen proposamenak eta 239,25 puntu Acciona-Iridium taldeak. Gauzak horrela, 1.000 puntutatik, lehen enpresa taldeak 797 puntu lortu ditu eta bigarrenak 785,8.

Kontseilariak azaldu duenez, prozesuan beste urrats bat eman da; orain, Kontratazio Mahaiak proposamen ekonomikoaren eta finantza-plangintzaren koherentzia aztertu beharko ditu. Azterketa horretan Nafarroako ekonomialarien elkargoak eta PricewaterhouseCoopers aholkularitza-enpresak ere parte hartuko dute.

Zuzeneko 500 enplegu 2018 arte

147,5 milioi euroko aurrekontua duen proiektua azken urteetan Nafarroan egin den obra publikoko lizitaziorik handiena da. Helburua 30 urtez Nafarroako Ubidearen lehen faseko eremu ureztagarria handitu, kudeatu eta ustiatzea da. Proiektuaren barruan sartzten da Artaxoa eta Lerin artean 21,3 km-ko adarra eraikitzea. Horrek Arga eta Ega ibaiertzen 15.275 hektareako eremua urezgarri bihurtzea ahalbidetuko du.

Kontseilariak azpiegituraren garrantzia azpimarratu du; Nafarroako lurralde-oreka bultzatzeaz gain, 500 pertsonari zuzeneko enplegua emango die eraikitzeako obretan (2014-2018) eta 25.000 langile dituen Foru Komunitateko nekazaritzako elikagaien sektorea sendotuko du.

Honako hau da inbertsioen egutegia: 8 milioi 2014an, 43 milioi 2015ean, 59 milioi 2016an, 41 milioi 2017an eta 10 milioi 2018an.

Lehiaketa ekonomikoki pisu handikoa denez, prozesua zorrotasun eta gardentasun handienarekin gauzatu nahi da. Horretarako, araudiak ezarritako neurriez gain beste batzuk hartu dira. Hala, txosten teknikoak nekazaritza-ingeniariei eta bide, ubide eta portuetako ingeniarietako elkargoak egin dira. Eskaintza ekonomikoa ere ekonomialarien elkargoak baloratuko dira. Gainera, Nafarroako Kontratazio Batzordeko ordezkari bat gehitu da Kontratazio Mahaiari.